MINTZODROMOA

Nola egingo dugu ?

Mintzodromo hau egiteko **taldeka** (launaka, bosnaka, seinaka...) eseriko gara mahaietan. **2 mintzagai** izango ditugu eta mintzagai bakoitza **20-25 minutukoa** izango da. Saio bakoitzean mahaiz aldatuko gara, beste solaskide batzuekin aritzeko.

Mahaiz aldatzeko ondoko argibideei jarraitu behar zaie:

- Hau da taldez talde mugitzeko erabiliko duzun zenbakia.



- Bigarren mintzagaia hasten denean zenbakiak esango dizu zenbat mahai aurreratu behar duzun. Adibidez, nire zenbakia 3.bada, horrela mugituko naiz.

Hemen eseriko naiz



Eserita nagoen mahaia

24.korrika aek
12.eguna

Euskara gara... eta IZANGO GARA!

Benetako lanketa, konpromisoa, behin Korrika igarota dator. Asmo handiko helburuekin abiatzen dugu lasterketa, baina ekimena bera labur geratzen zaigu askotan, eta Korrikak irauten duen 11 egunetatik harago joan behar dugu. Horregatik abiatu dugu ekimen hau, eta horregatik izendatu dugu **Korrikaren 12. Eguna**.

24. KORRIKAk utzitako sentsazio indartsuei helduta, AEKn hainbat konpromiso hartu ditugu. Izan ere, gugandik hasita, AEKk euskararen pizkunderako zer eskaini ahal duen erakutsi nahi diogu Euskal Herri osoari. Beraz, besteak beste, jendarteko hainbat esparrutan aurrerapausoak egingo ditugu euskararen normalizazioan. Eta gainerako eragileak ere hala egitera gonbidatu nahi ditugu.

HASI AURRETIK
ERANTZUN GALDETEGIA

aek

01 ERABILERA DATUAK

- *Euskal Herriko kaleetan, euskaraz ari da zortzi lagunetatik bat, nahiz eta euskaldunen kopurua azken 40 urteetan bikoiztu den.*
- *Azken bost urteetan haurren erabilera igo bada ere, euskara gutxiago erabiltzen da eremu euskaldunetan.*
- *Gazteek, batez ere emakumezkoek, euskara gehiago erabiltzen dute helduak baino Gipuzkoan, Ipar Euskal Herrian eta Araban.*
- *Haurrak eta nagusiak batera daudenean euskararen erabilera altuagoa da, bereizita daudenean baino.*

EUSKARAREN ERABILERA HAUSNARTZEN

1. Zergatik uste duzu euskararen ezagutza handituta ere, kaleetan erabiltzaile kopurua ez dela igotzen?
2. Adin talde batzuen artean euskararen erabileran alde handia dago. Zergatik?
3. Zein egoeratan erabiltzen duzu euskara gehien? Eta zeinetan gutxien? Zergatik?
4. Zer esan nahi du zuretzat euskararen biziberritzea, eta nola ikusten duzu zure burua horretan?
5. Nolako presentzia du euskarak zure inguruko kirol eta aisialdi taldeetan? Nahikoa al da?
6. Eremu ez formal hauetan euskararen erabilera handituko balitz, kaleko erabileran eragingo luke?
7. Zure herrian euskaraz lasai aritzeko guneak dituzu? Zergatik?
8. Euskararen erabileran eragiteko, tokian tokiko arnasguneak sortzea beharrezkoa da. Baieztapenarekin bat zatoz? Zergatik?
9. Zer politika dira beharrezkoak kalean euskararen presentzia handitzeko?
10. Nola sustatuko zenuke euskararen erabilera eremu digitalean eta sare sozialetan?
11. Zer rol dute erakunde publikoek euskararen normalizazioan?
12. Zer rol dute herritarrek eta herriko eragileek politika publikoetan eragiteko?

02 PRAKTIKA JARDUERAK AEKn

PRAKTIKATUn 2005etik daramagu mintzapraktika egitasmoak antolatzen: mintzalagun/berbalagun; familientzako gurasolagun programak; euskalkiak eta hitanoa ikasteko mintzataldeak ere bai. Ikasturte honetan, 104 herritan: Agoitzetik Muskizera edo Tuteratik Zarautzera. Gure helburua da euskaldunon komunitatea trinkotzea eta eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, euskaraz aritzeko espazio erosoak eta harreman sare berriak sortzen ditugu.

EUSKARAZ PRAKTIKATZEKO AUKERAK

1. Zure herrian euskaraz praktikatzeko aukerak nahikoak direla iruditzen zaizu? Zergatik?
2. Zure herriko zein kolektibok (gazte, guraso, heldu, euskaldun berriak...) dute premia handiena praktika guneak izateko?
3. Zure ustez garrantzitsua al da aisialdian euskarazko eskaintza egotea? Zure ingurukoa nolakoa da?
4. Badago zure herrian euskaraz praktikatzeko egitasmorik? Zein? Nolakoa da?
5. Ezagutza izatetik erabilerara jauzi egiteko, zergatik da garrantzitsua euskaraz praktikatzeko espazio antolatuak izatea?
6. Zer arrisku dago praktika guneak indartu ezean?
7. Zure ustez, zein eragilek (eskolak, elkarteak, kirol taldeak, merkataritza...) parte hartu behar dute egitasmoa indartzeko?
8. Hizkuntzaz haratago, zer ekarpen egiten diote horrelako egitasmoek komunitateari?
9. Euskalki eta hitanoa: zure ustez inportantea da tokian tokiko ondarea zaintzea?
10. Zer eskatu beharko litzaioke Udalari: baliabide ekonomikoak, espazioak, dinamizazioa, komunikazioa...?
11. Nola lotu daiteke praktika egitasmo bat herriko euskara plan edo hizkuntza politikarekin?
12. Zer ondorio ditu zure herrian euskaraz praktikatzeko egitasmorik ez egoteak?
13. Zure herrian praktika jarduera indartzea edo sortzea lortuko bagenu, zer aldaketa ikusiko zenuke 3-5 urte barru?
14. Zer mezu labur bidaliko zenioke Udalari gaur bertan, praktika egitasmoen alde?